

Koiuntura di-da batean

2017ko iraila

Aurkibidea

1. EAEko hazkundera
2. Lan merkatua
3. Inflazioa
4. Merkataritza
5. Ingurunea
6. Aurreikuspenak

Eranskina

1. EAEko ekonomia %2,9 hazi zen bigarren hiruhilekoan.

Kanpo saldoak ekarpen positiboa egin zion BPGaren gehikuntzari.

2. Enplegua zertxobait areagotzen ari da 2017an zehar.

Lanaldi osoko 917.000 lanpostu baliokide baino gehiago daudela kalkulatu da.

3. Inflazioa bi hamarrenetan bizkortu zen uztailean.

Erregaiak gutxiago merkatu dira aurten 2016an baino.

4. Esportazioek portaera ona izan zuten lehen sei hilekoan.

Hala atzerrian saldutako guztiak nola energiaz bestelakoek inoizko kopuru altuena markatu zuten.

5. Europaren hazkunde erritmoa azken urteetako bizi-ena da.

Esportazioen bultzadak kanpo saldoaren ekarpen positiboa ahalbidetu du.

6. NDFren arabera, munduko susperraldia finkatzen ari da.

Munduko ekonomia %3,5 haziko da aurten eta %3,6 datorren urtean.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA EKONOMIA
SAILA
Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza


DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ECONOMÍA
Dirección de Economía y Planificación

EAE-KO EKONOMIAREN HAZKUNDEA

EAEko ekonomia %2,9 hazi zen bigarren hiruhilekoan

BPGaren aldakuntza


Urte arteko aldakuntza tasa



2017ko bigarren hiruhilekoan, EAEko ekonomia %2,9 hazi zen urte arteko tasan, hots, aurreko hiruhilekoan baino hamarren bat gehiago. Horri esker, 2016ko hasieratik bizi zen moteltzeko joera leuna eten da. Eskariaren ikuspegitik, esportazioen bilakaera ona nabarmendu behar da, termino errealetan %1,7 handitu zirelako eta aurreko emaitzak gainditu zituelako. Orobat, inportazioak ere areagotu ziren, baina erritmo motelagoan. Horren ondorioz, kanpo saldoak ekarpen positiboa egin dio BPGaren gehikuntzari. Alderdi negatiboen artean, gainontzeko osagai nagusien moteltze leuna aipatu behar da, bereziki kapital eraketa gordinak erakusten duen apaltzea.


Azken kontsumoaren bilakaera

Urte arteko aldakuntza tasa




Inbertsioaren bilakaera

Urte arteko aldakuntza tasa




Industriaren balio erantsia

Urte arteko aldakuntza tasa



Eraikuntzaren balio erantsia


Urte arteko aldakuntza tasa



Sektoreen ikuspegitik, zerbitzuen bultzada jarraitua azpimarratu behar da, aurreko hiru hilekoetako hazkunde nabarmena zertxobait hobetu duelako. Zerbitzuen artean, turismoari lotuago dauden taldeak oraindik erakusten duen sendotasuna azpimarratu behar da, berriro ere aldakuntza tasa handitu duelako. Beste aldetik, bai arlo publikoko zerbitzuek bai gainontzeko zerbitzuek tonu hedakor egonkorragi eutsi zioten, %3,0aren azpitik. Maila bat beherago daude industria eta eraikuntza, biek %2,0aren inguruko aldakuntza tasak jasota, hazkunde iraunkorreko irudia eskaintzen duena.


Zerbitzuen balio erantsia

Urte arteko aldakuntza tasa




Merkataritza, ostalaritza eta garraioaren balio erantsia

Urte arteko aldakuntza tasa



Administrazio publiko, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuen balio erantsia

Urte arteko aldakuntza tasa




LAN MERKATUA

Enplegua zertxobait areagotzen ari da 2017an zehar

Enplegu guztia


Urte arteko aldakuntza tasa



Eustaten kontu ekonomikoek zenbatetsi dutenez, enplegua, lanaldi osoko lanpostu baliokidetan neurtuta, %2,2 hazi zen bigarren hiruhilekoan. Hori da 2007ko amaieratik inoiz jaso den gehikuntzarik altuena. Gehikuntza horren ondorioz, EAEko ekonomiaren lanpostuen kopurua 917.000etatik gora kokatu da, azken bost urteko zenbakirik gorena dena. Halaber, duela urtebete bat zeudenak baino 20.000 gehiago dira. Beste aldetik, urte arteko tasaren goranzko joerak pentsarazten du datozen epealdietan ere emaitza onak eskuratuko direla. Sektoreka aztertuta, zerbitzuetan eta industrian nolabaiteko bizkortzea hauteman da, eraikuntzak aurreko erritmoari eutsi dion bitartean.

Enplegua zerbitzuetan


Urte arteko aldakuntza tasa



Izan ere, zerbitzuek orain arte erakutsi duten enplegua sortzeko ahalmen bizia areagotu zuten eta %2,3ko urte arteko gehikuntza lortu zuten, aurreko datua baino bi hamarren gehiago. Horri esker, 662.000 lanpostuen kopurura hurbildu dira, inoizko altuena baita. Horrek esan nahi du azken urtebetean sortu diren 20.000 enpleguetatik 15.000 inguru sektore horretakoak direla.

Enplegua industrian


Urte arteko aldakuntza tasa



Industriaren enplegua %1,9 hazi zen, aurreko hiru epealdietan jaso ziren emaitzetatik oso hurbil dagoen tasa bat delarik. Hazkunde horrek 186.600 lanpostuen ingurura igotzen du sektorearen kopurua, duela urtebete bat zeudenak baino 3.400 gehiago direla. Hobekuntza hori egon den arren, industriak 60.000 lanpostu gehiago behar ditu krisiaren aurrean zeukan maila berreskuratzeko.


Enplegua lehen arloan

Urte arteko aldakuntza tasa




Enplegua eraikuntzan

Urte arteko aldakuntza tasa



Gizarte Segurantzako afiliazioa

Urte arteko aldakuntza tasa




Hirugarren hiruhilekorako dagoeneko eskuragarri dagoen informazioak iradokitzen du enpleguaren bilakaeran ez dagoela aldakuntza handirik. Izan ere, Gizarte Segurantzako afiliazioa %2,0 hazi zen uztailean eta abuztuan, hots, bigarren hiruhilekoan baino zertxobait gutxiago, baina aurreko bi epealdietan beste. Gaur eguneko adar dinamikoan oraindik hezkuntza (%6,3), aisialdiko jarduerak (%5,4) eta ostalaritza (%3,6) dira. Aitzitik, finantza jarduerak (%-4,3) lanpostuak gutxitzen jarraitzen dute.

INFLAZIOA

Inflazioa bi hamarrenetan bizkortu zen uztailan

KPI indize orokorra
Urte arteko aldakuntza tasa




EAEko kontsumoko prezioen indizea %1,7an kokatu zen uztailan, aurreko hilekoko datua bi hamarrenetan gaituz. Gorkada horren arrazoi nagusietako bat erregaien bilakaeran datza, 2016ko hileko berean baino gutxiago merkatu baitira aurrean. Indize orokorra igo den arren, oraindik betetzen du Europako Banku Zentralaren helburua eta %2,0aren zertxobait azpitik dago.


KPIaren banaketa
Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2015	2016	2017ko uztaila	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	-0,3	0,0	1,7	1,7
Azpiko inflazioa (%81,8)	0,7	0,9	1,4	1,2
- Elikagai landuak (%14,3)	1,1	0,9	0,3	0,1
- Industria ondasunak (%24,5)	0,3	0,8	0,5	0,2
- Zerbitzuak (%43,1)	0,8	1,1	2,1	0,9
Hondar inflazioa (%18,2)	-4,5	-4,2	2,9	0,5
- Landu gabeko janariak (%7,8)	1,9	2,6	0,8	0,1
- Energia (%10,4)	-8,4	-8,2	4,0	0,4

Azpiko inflazioa
Urte arteko aldakuntza tasak



Hondar inflazioa
Urte arteko aldakuntza tasak



Petrolio upelaren prezioa

Dolarrak



Aipatua izan denez, erregaien salneurriak eragin nabarmena dauka KPI indizearen bilakaeran. Uztailean, Brent motako petrolioaren upela 48,5 dolarretan (42,2 eurotan) saldu zen, baina abuztuan, datu hori jadanik ezagutzen baita, prezioa 52,0 dolarretara (44,1 eurotara) goratu da. Beraz, energiaren atalean oraindik tentsio gehiago egongo dela espero da eta horrek indize orokorrean eragina izango du. Eragin hori bereziki garraioan hautematen da, une hauetan igoera handiena duten ataletako bat delarik (%2,4). Orobat, etxebizitzaren taldean ere (%2,7) eragina dauka, nahiz eta argindarraren merkatzeak taldearen igoera apaldu duen. Azkenik, jatetxeak eta hotelak barnean hartzen dituen taldea (%2,5) ere %2,0ko erreferentziaren gainean dago.

KPIaren talde nagusiak
Urte arteko aldakuntza tasak. 2017ko uztaila

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	1,7	1,5	1,3
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	0,3	0,1	1,1
Edari alkoldunak eta tabakoa	1,7	1,7	2,2
Jantziak eta oinetakoak	0,8	0,4	0,5
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	2,7	3,2	1,6
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	-0,6	-0,6	0,1
Medikuntza	1,5	0,9	1,0
Garraioa	2,4	2,4	1,9
Komunikazioak	1,5	1,5	-1,8
Aisia eta kultura	1,7	1,2	1,5
Hezkuntza	1,6	1,0	0,6
Jatetxeak eta hotelak	2,5	2,1	2,6
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	0,8	1,0	0,8


Iturria: INE eta Eurostat.

KANPO MERKATARITZA

Esportazioek portaera ona izan zuten lehen seihilekoan

Esportazio guztiak


Milioi euroak



Eustatek berriki argitaratu duen informazioaren arabera, atzerrira bidalitako EAEko esportazioak inoizko handienak izan dira 2017ko lehen seihilekoan. Guztira, saldutakoaren balioa 12.000 milioi euroetatik oso hurbil egongo da. Zenbaki hori energiaz bestelako esportazioen bilakaera onari esker lortu da bereziki, gaur egun EAEko esportazio guztien %90 baino gehiago biltzen dutelako oraindik. Horiek ere inoizko diru kopururik gorena eskuratu zuten lehen seihilekoan. Gorakada hori are garrantzitsuagoa da kontuan hartzen bada 2016ko aldakuntza tasa negatiboa izan zela, beheranzko joera etenda geratuz.


Energiako esportazioak

Milioi euroak



Energiaz bestelako esportazioak


Milioi euroak



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuak erabilia.


Inportazio guztiak

Miloi euroak




Energiako inportazioak

Miloi euroak



Energiaz bestelako inportazioak

Miloi euroak




Inportazioek ere oso emaitza onak eskuratu zituzten lehen sei hilekoan, baina oraindik ez dira iritsi 2008ko hasieran jaso zuten mailara. Izan ere, atzerrian erositako guztiaren balioak 9.000 milioi euroko langa gaingituko du, azken bederatzi urteetako kopururik altuena baita.

Diru kopuru horietatik ondorioztatzen den merkataritza saldoa EAEn aldekoa da oraindik eta 2.500 milioi euroren ingurukoa da. Emaitza hori aurreko epealdietakoa baino txikiagoa da, baina hurbil dago 2014an eta 2015ean lortu zituenetatik. Energiaz bestelako saldoa 4.000 milioi eurotik gorakoa izango da.

Saldoaren guztizkoa

Miloi euroak




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuak erabilia.

INGURUNEAREN HAZKUNDEA

Europaren hazkunde erritmoa azken urteetako biziana da

Euroguneko BPGa


Urte arteko aldakuntza tasa



Aurtengo bigarren hiruhilekoan, Europako ekonomiak suspertze leuneko bideari eutsi zion eta %2,3ko hazkundea lortu zuen urte arteko tasan, 2011ko lehen hiruhilekotik jaso duen altuena baita. Ekonomiaren hobekuntza Euroguneko herrialde gehienetara hedatu da, eta Europako herrialde nagusien artean, Erresuma Batuan bakarrik nabaritzen da nolabaiteko ahultasuna, gehikuntza erritmoa %1,7ra apaldu duelako, azken epealdietako txikienetako bat delarik. Aitzitik, Frantzia (%1,7) eta Italia (%1,5) atzean uzten ari dira beren ahultasuna, Alemaniak bere hazkundea bi hamarrenetan, %2,1 arte, bizkortu duen bitartean. Beste hiruhileko batez, azpimarraztekoa da Espainiaren eta Portugalen bizitasun handia. Lehen kasuan, dagoeneko bederatzi hiruhileko kateatu ditu %3,0aren gaineko hazkunde tasak eskuratzen. Bigarrenak, berriz, urte hasierako emaitza bikaina finkatu du bigarrenetan, %2,9 batekin.


Alemaniko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa




Frantziako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa




Italiako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa

**Erresuma Batuko BPGa**

Urte arteko aldakuntza tasa




Europako ekonomiaren hazkundera bi eskarien bultzadan oinarritu da. Izan ere, kanpo eskariak atzean utzi ditu 2016ko ekarpen negatiboak eta lau hamarrenetako ekarpenak egin dizkio Euroguneko BPGaren gehikuntzari (hiru hamarren, berriz, Europar Batasuneko multzoan), esportazioen erritmoak (%4,4) eutsi egin duelako, inportazioena (%3,9) moteldu den bitartean. Barne eskariaren barruan, kapital eraketa gordinak bere bultzada bizia apaltzen jarraitu du eta urte arteko gehikuntza %2,0an utzi du, kontsumo pribatuaren emaitzatik (%1,8) nahiko hurbil dagoen balioa baita.


Sektoreka, industria manufakturagilearen bultzada eta eraikuntzaren susperraldia hautematen dira, biek % 3,0tik gorako tasak lortzen dituztelako. Zerbitzuen artean, informazio eta komunikazioei lotutakoek (%5,0) eta lanbide jarduerak eta zerbitzu laguntzaileak (%2,9) bizitasun handiko irudia eskaintzen dute. Merkataritza eta garraioak ere meritu handiko hazkundera jaso du hiru hilekoan (%2,9). Beste aldetik, bai administrazio publikoak bai higiezinaren jarduerak urte arteko aldakuntza txikiagoak eskuratu dituzte, finantza jarduerak balio erantsia berriro gutxitu duten bitartean (%-0,6).

Espainiako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa

**Portugaleko BPGa**

Urte arteko aldakuntza tasa




NDF-REN AURREIKUSPENAK

NDFren arabera, munduko susperraldia finkatzen ari da

Munduko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



NDFk uztailen aurreikuspenez argitaratu zuen txostenak adierazten du munduko ekonomiaren susperraldia bide onetik doala eta BPGa aurreko urtearen %3,5 haziko dela iragartzen du, datorren urtean %3,6ra igotzeko. Aurreikuspen horiek bat datoz apirilean ezagutarazi zituenekin, baina aldaketa batzuk egin dituzte herrialde batzuei buruz prestatu dituzten emaitzetan. Izan ere, erakunde hori ezkorragoa da orain AEBetako eta Erresuma Batuko etorkizunaz. Aitzitik, gorantz berrikusi du aurreikuspena Eurogunearentzat, bereziki Italiarentzat eta Espainiarentzat.


NDFren aurreikuspen ekonomikoak

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2016	2017	2018	2017	2018
Munduko ekonomia	3,2	3,5	3,6	0,0	0,0
Ekonomia aurreratuak	1,7	2,0	1,9	0,0	-0,1
AEB	1,6	2,1	2,1	-0,2	-0,4
Eurogunea	1,8	1,9	1,7	0,2	0,1
Alemania	1,8	1,8	1,6	0,2	0,1
Frantzia	1,2	1,5	1,7	0,1	0,1
Italia	0,9	1,3	1,0	0,5	0,2
Espainia	3,2	3,1	2,4	0,5	0,3
Erresuma Batua	1,8	1,7	1,5	-0,3	0,0
Japonia	1,0	1,3	0,6	0,1	0,0
Garatzen ari diren herrialdeak	4,3	4,6	4,8	0,1	0,0
Txina	6,7	6,7	6,4	0,1	0,2
India	7,1	7,2	7,7	0,0	0,0
Errusia	-0,2	1,4	1,4	0,0	0,0
Brasil	-3,6	0,3	1,3	0,1	-0,4

Iturria: Nazioarteko Diru Funtza.


Ekonomia aurreratuen BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa




Garapen bidean dauden ekonomien BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa




AEBetako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Erresuma Batuko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa




NDFren iritziz, munduko ekonomiarentzako arriskuak orekatuta daude epe laburrean. Alde batetik, munduko ekonomia aurreikusitakoa baino gehiago hazi daiteke Europako susperraldi bizkorragoa lortzen badu, behin hauteskundeen emaitzez zeuden zalan-tzak argitu eta gero. Aitzitik, hazkundera txikiagoa izan daiteke merkatuetan zuzenketa bat gauzatzen bada, Txinan kredituaren hedatze biziak jarraitzen badu edo AEBetako moneta politikaren normaltzeak nazioar-teko finantzen baldintzetan tentsioa sartzen badu.

Herrialde garatuetan kontuan hartu behar diren beste puntu batzuk biztanleriaren zahartzea, inbertsioaren ahultasuna eta produktibitatearen igoera txikia dira. Hori dela eta, beharrezkoa da produktu potentziala areagotzea eta diru sarrerak hobeto banatzea.

Espainiako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: NDF.

EAE-KO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

	2016	2016				2017	
		I	II	III	IV	I	II
BPG	3,1	3,3	3,2	3,0	2,9	2,8	2,9
Familien kontsumoa	3,1	3,3	3,4	3,1	2,9	3,0	3,0
Administrazioaren kontsumoa	2,2	2,4	2,7	0,8	3,0	2,5	1,2
Kapital eraketa gordina	3,3	3,4	3,7	3,1	3,2	2,9	2,5
Barne eskaria	3,0	3,1	3,3	2,7	3,0	2,9	2,7
Esportazioak	2,2	4,2	3,0	1,6	0,3	0,7	1,7
Inportazioak	2,2	3,9	3,2	1,3	0,4	0,9	1,4
Lehen arloa	1,6	11,6	2,8	-0,7	-7,3	2,6	-2,7
Industria	3,3	4,8	2,4	2,9	3,0	2,0	2,3
Eraikuntza	1,6	-0,3	2,7	1,9	1,9	2,1	2,0
Zerbitzuak	3,2	3,0	3,4	3,1	3,1	3,1	3,2
Balio erantsi gordina	3,1	3,3	3,1	3,0	2,9	2,8	2,9
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	3,1	3,2	3,2	2,9	3,1	3,0	3,0

Iturria: Eustat.

Aurreikuspenak. 2017ko ekaina

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017			2017	2018
	II	III	IV		
BPG	2,7	2,6	2,6	2,7	2,3
Barneko azken kontsumoa	2,5	2,4	2,3	2,5	2,2
Familien kontsumoa	2,8	2,6	2,6	2,7	2,3
Administrazioaren kontsumoa	1,4	1,4	1,5	1,7	1,8
Kapital eraketa gordina	2,9	3,0	3,3	3,0	3,2
Barne eskariaren ekarpena	2,7	2,6	2,5	2,7	2,5
Kanpo eskariaren ekarpena	0,0	0,0	0,1	0,0	-0,2
Lehen arloa	-6,3	-7,8	-6,0	-4,4	-10,2
Industria	2,6	2,5	2,7	2,5	2,7
Eraikuntza	1,9	2,0	2,2	2,0	1,6
Zerbitzuak	2,9	2,9	2,8	2,9	2,4
Balio erantsi gordina	2,7	2,7	2,7	2,7	2,4
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,8	2,6	2,5	2,7	2,0
Enplegua	1,9	1,9	1,7	1,9	1,5

Iturria: Ogasun eta Ekonomia Saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

EAEko ekonomiarako aurreikuspenak

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2017	2018		2017	2018
Confebask	3,0	—	BBVA	2,8	2,9
CEPREDE	2,9	2,8	Funcas	2,8	—
Laboral kutxa	2,9	2,7	Hispalink (BEGren aldakuntza)	2,7	2,4

Iturria: CEPREDE (2017ko ekaina), BBVA (2017ko maiatza), Confebask (2017ko uztaila), Laboral Kutxa (2017ko uztaila), Funcas (2017ko maiatza) eta Hispalink (2017ko uztaila).

ESPAINIAKO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2016				2017	
		I	II	III	IV	I	II
BPG	3,2	3,4	3,4	3,2	3,0	3,0	3,1
Kontsumo pribatua	3,2	3,6	3,4	3,0	3,0	2,5	2,5
Kontsumo publikoa	0,8	1,7	0,7	0,8	0,0	0,5	1,3
Kapital finkoaren eraketa gordina	3,1	4,3	3,4	2,6	2,2	3,9	3,4
- Aktibo finko materialak	3,1	4,4	3,4	2,7	2,2	3,9	3,4
- Eraikuntzan	1,9	2,3	1,8	1,6	1,9	2,9	3,0
- Ekipamendu ondasunetan	5,0	7,4	5,7	4,2	2,6	5,4	4,1
- Jabetza intelektualaren produktuak	2,9	4,0	3,2	2,0	2,4	3,8	2,9
Nazio eskaria (ekarpena)	2,8	3,5	2,9	2,5	2,2	2,3	2,4
Esportazioak	4,4	3,8	6,5	2,9	4,4	7,3	4,5
Inportazioak	3,3	4,5	5,4	1,0	2,3	5,7	2,8

Iturria: INE.

Espainiako ekonomiarako hainbat aurreikuspen

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2017	2018		2017	2018
AFI	3,0	2,5	Intermoney	2,8	2,3
Axesor	2,8	2,3	Repsol	2,9	2,7
BBVA	3,0	2,7	Santander	2,8	2,2
Bankia	2,9	2,5	Solchaga Recio & asociados	3,1	2,7
CaixaBank	2,8	2,4	BATEZ BESTE	2,8	2,5
Cemex	2,9	2,4	Gobernua (2017-07)	3,0	2,6
CEEM-URJC	2,8	2,6	Espainiako Bankua (2017-04)	2,8	2,3
CEPREDE-UAM	2,8	2,6	Europar Batzordea (2017-05)	2,8	2,4
CEOE	2,5	2,3	NDF (2017-04)	2,6	2,1
FUNCAS	2,8	2,5	ELGE (2017-03)	2,5	2,2
ICAE-UCM	2,7	2,5	The Economist (2017-06)	2,8	2,3
IEE	3,0	2,4	Consensus Forecast (2017-06)	3,0	2,4

Iturria: FUNCAS, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa, CEPREDE, ELGE, NDF, Europar Batzordea, The Economist eta Consensus Forecast. AFI: Analistas Financieros Internacionales; ICAE-UCM: Instituto Complutense de Análisis Económicos-Madrileko Unibertsitate Konplutentse; ICO: Instituto de Crédito Oficial; IEE: Instituto de Estudios Económicos; IFL-UC3M: Flores de Lemus Institutua-Carlos III Unibertsitatea Madril; NDF: Nazioarteko Diru Funtsa; ELGE: Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea.

NAZIOARTEKO EKONOMIA

Hazkunde ekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2016				2017	
		I	II	III	IV	I	II
AEB	1,5	1,4	1,2	1,5	1,8	2,0	2,2
Txina	6,7	6,7	6,7	6,7	6,8	6,9	6,9
Japonia	1,0	0,5	0,9	1,0	1,7	1,4	2,1
Kanada	1,4	1,3	1,1	1,5	2,0	2,3	3,7
Europar Batasuna	1,9	1,8	1,8	1,9	2,0	2,1	2,4
Eurogunea	1,7	1,7	1,6	1,7	1,9	2,0	2,3
Alemania	1,9	1,8	1,8	1,9	1,9	1,9	2,1
Frantzia	1,2	1,2	1,1	0,9	1,2	1,1	1,7
Erresuma Batua	1,8	1,6	1,7	2,0	1,9	2,0	1,7
Italia	0,9	1,1	0,8	0,9	1,2	1,2	1,5
Herbehereak	2,1	1,2	1,9	2,4	2,6	2,7	3,8

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

Consensus Forecast. 2017ko abuztua

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2017	2018	2017	2018	2017	2018
AEB	2,1	2,4	2,0	2,0	4,4	4,2
Japonia	1,4	1,1	0,5	0,8	2,8	2,7
Kanada	2,9	2,0	1,6	1,9	6,5	6,4
Europar Batasuna	2,0	1,8	1,7	1,7	—	—
Eurogunea	2,0	1,8	1,5	1,3	9,2	8,7
Alemania	1,8	1,8	1,7	1,6	5,7	5,6
Frantzia	1,6	1,6	1,1	1,2	9,3	9,0
Erresuma Batua	1,6	1,4	2,7	2,6	4,7	4,9
Italia	1,2	1,0	1,4	1,2	11,3	10,9
Herbehereak	2,2	1,9	1,4	1,5	—	—

Iturria: Consensus Forecast.